Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

LARRAMENDI KALEA OINEZKOENTZAT EGOKITZEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Larramendi Kalea -Prim eta Urbieta artean- oinezkoentzat egokitzeari buruzko MOZIO hau aurkezten du Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko martxoaren 20ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko Udal Gobernuak, Larramendi kalea -Prim eta Urbieta kaleen artean- oinezkoentzat egokitzeko, hartu-emanak izan zituen bertako eragileekin. Garai hartan bertakoen aparkalekuak gehitzea premiazkoa zen, aparkatzeko arazo handiak baitzeuden. Hura zela eta, Larramendiko hobekuntza ezin izan zen burutu. Legealdi bukaeran bertakoentzat aparkalekuak gehitu ziren, eta legealdi berrian 21 hilabete pasatu eta gero, Udal Gobernuak gaiari heldu beharko lioke. Egia da eremu horretan bertakoek aparkatzeko 25 toki daudela eta hori ere landu beharko litzatekeela, konpentsazio neurrien bitartez.

Zinegotzi-ordezkariak, batzordean, ekimena begi onez ikusten zuela adierazi zuen. Merkataritza Aholku Kontseiluaren hurrengo bilerara eramateko hitza eman zuen, baina ez zuen eperik zehaztu eta beste inongo xehetasunik ere ez zuen eman. Zentzu horretan epe laburrean Aholku Kontseilura eramateaz gain, bertako eragileekin (auzotarrak, dendariak eta tabernariak, besteak beste), adostasunak landu beharko liratekeela uste dugu.

Horregatik guztiarengatik, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkezten duen

KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hiru hilabete barru Larramendi kalea (Prim eta Urbieta kaleen artean) oinezkoentzat egokitzeko egitasmoa Merkataritza Aholku Kontseilura eraman dezala, partaidetzaz hura azter dadin.

Donostian, 2017ko martxoaren 24an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia